

# AITITA-ORDIAREN LENENGO IPUÑA



Txikitan be, ipuin-zalezalea nintzan; eta zaletasun begiko ori zala-ta, ipuin politen bat nun eta zelan entzungo, artega samar ibiltzen nintzan. Ikastolara joaten nintzanetan, neure laguntxuei sarritan be sarritan ixil-mixiika esaten neutsoen: —“Gaur zelako ipuñak dakazuez ba?”. “Aitita-amamak bart zer edestuz dautzue ba?”. Eta bereala, neure laguntxuak, itaun orreri egokiro erantzunaz, sekulako ipuin politik edestuten eustezan.

Nik baña, tamalez, neure aitita-amamak egundo ezagutu enebazalako, neure adizkide ta lagunei ipuin askorik ezin izaten neutsoen edestu. Nire gurasoen gurasoak ni ludiratu orduko bestalderatu ziralakako, euren aboetatik ezertxu be entzuteko zorionik eneban izan... Ori barriz, zoritxar anditzat etsiten neban. Eta zoritxar ori go-goan nebalarik, lagun-artean bein baño geiagotan esan izan neban: “Neure aitita-amamak bizi balira orraitik, a zelako ipuñak edestuko neukezan!”. Eta ori esaten neban bakotxian, neure begitxuak malko-garratzez ezotuten ziran. Olakoxe ipuin-zale errimea nintzan!

Ganeko egun baten, esaniko itzak buruan nebazalarik, neure barruan asmo berezi gozoa sortu zan; eta asmo gozo orren altxoan, zelan be enekiala,

neure ipuin-egarria asetu-teko, erriko atso-aguren artian aitita-amamaren bat billatutea erabagi neban

Ain zuzen be, urrengo igandean, amarretako meza nagusi-ostean, aguratu zar bat, larogei urteren zama astuna bizkarrian ebalarik, oin narrazka etxerantza yoyala ikusi neban. Agura ori, errian, “Baltzuntze” basetxean bizi zalako, “Baltzuntze”ko Andolin” izenagaz ondoen ezagutzen zan. Ondo gizon ona ta zintzoa bera!... Bas-etxe zar aretan, bere emaztea ta bera, beti donokira begira bizi zirala esaten eben. On-onak ziran bai!

Eta igande aretan asmoa ta zaletasuna betetutiarren, Andolin agurgarriari, geldiro-geldiro atezetik jarraitu neutson; eta bere ondora eldutian, neure aitita izatea gura ete-eban itandu neutson; eta ori entzutean, Andolin on-onak, neure aitita poz-pezik izango zala. barreka esan eustean. Orduan nik, olan izan ezker, igande gutzietan etxerantza lagunduko neutsola esan neutson, begiak be erdi-itxutuak eukozala-ta; orretarako baña bereala baldintza polit bat iminteko azartasuna izan neban. Igande gutzietan ipun bat edo beste edestu biarko eustala esan neutson. Eta agura agurgarri ta onak baldintza ori onez artuta, neure guraria poz-pezok betetuko ebala esan eustan. Ganera

barriz, lantzian-bein, kerekak, sagarrak eta intxaurrak eta abar, emongo eustazala be esan eustan. Orduko nire poza! Ene! Ezti-bitsetan saltoka!

Gerotxuago nik barriz, bere itzakaz jaubetuaz, antxe bertan ipuintxu bat edestuteko arren egin neutson; eta beste barik, Andolin agurearen abotik ipuin politikotara urten zan. Ona emen:

“Bein baten, Ganoste menditik Urkioleta’ko gizon bat burdi bete egurragaz etxerantza etorri zan; eta gizon ori, negurako egur ederra pillatu ebala-ta, bidean poz-pezok etorran. Onetan, burditxiringa batek lupetzan laprast egin ebala, burdia itzuli egin zan. Ori ikusita, Urkioleta’ko gizonak, goiak et beiak aitatuta, asarre-bitsetan, birau ikaragarri bat jaurti eban. Orduan, Itxurereka-aldetik adar-buztendun txerren bildurgarriak agertu ziran; eta txerren adar-okera rek Urkioleta-gizona, atze-aldetik burduntzi gorria sartzen eutsolarik,



bere burdi ta idi ta gutti Artzate’ko labarran gorra aiena baten eroanda, Akelarre’ko txuntxurrera eroan eben; eta geiago gizon biraulariaren aztarrenik iñok egundo ezaban ikusi.

Txerren bildurgarriak, euren soin baltzak jakeluzte gorriak ezalduten ei ebazan; eta euren ofetan burdiñazko oski gogorak ei-eukoezan.”

Agura zarraren ipuñaren entzutean, poz gozo-gozoa barruan gañezka nebalan

rik, une atan ludian zoruntsuena neu nintzala uste izan neban; eta uste atsegingarri orregaz ezin geiagoan poztuta, aguratuari eskuan mun-egiñaz agur egiñikoan, neure etxera pozez beterik joan nintzan.

Eta biaramonian, ikastolaratuteagaz batean, ipuintxua irakaslemerari ta neure laguntxuei aritiki-mamira edestu neutsoen; baita "Baltzuntze'ko Andolin" egaz egin neban izketalditxuaren barri be, ziet-ziet emon neutsoen. Orduan, irakaslemiak, errukitsua ta ona izateko, ta zarrari gogo onez laguntzeko ta abar esanda, idaztiño polit bat emon eustan. Ain bezuz polita eskuratzean, biotz-ikutze gozoa izan neban; eta neure be-

giak malkoz ezotuta nebazalarik, bere aolkuak onez artuten nebazala ta esanak osoan betetuko nebazala esan neutson.

Esan eta egin, aurrerantzako igande guztietan, meza nagosi ostean, Baltzuntze'ko agureari "aitita" aboa betean esanaz etxera gogo onez laguntzen neutson, naiz ta laguntxuakaz jolasean ibilli, guztia itxita, aiti-tagana joaten nintzan. Geroago barriz, erriko atso-agura guztiakaz adizkide andi egin nintzan. Eurekandik barriz amaikatxu gauza on eta eder entzun izan nebazan! Zenbat esakun eta aolku onuratsu! Jaungoiko ona!

"Zarraren esana gaztearen zantzuna".

(†) MAÑARIKO ERROSE

## OSAGILLEAREN ATALA

# ZAINDU SEME-ALABATXOEN AGIÑAK

Lenengo agiñak (ugatz-agiñak) urten arte, aurrak ez dabe ezer izaten agoan, eta onela izan bear da tajuzkoa ta osasunduna bada.

Egia esateko, gure baserritarren artean, eta kalekoen artean ere, umien ortzai ez diote jaramon andirik egiten, naiz izan okerrak, naiz ustel-materi dariola egon. Baña agintxu oneik gerorako ikusi bear andia dute:

1.—Jateko egiten diran indarrak, matrail-egurari sendotazuna ematen diote, eta andiago egiteko indarra.

2.—Janaria ortzakaz txikitu ta matrail-agiñakaz xeatu, gorputzen osasun ta onerako.

3.—Berba ondo egiteko laguntasuna.

4.—Zaindu ta geroko agiñari zuzen urtetako biga irakatsi.

5.—Aurpegiari edertasuna emateko.

Eta oneik lan guztiok egiteko, umien ortzak zaindu bear dira. Lenengo jaten irakatsi, geienak ba, dana iruntzi egiten dabe ahatak bezala.

Ez eman aia bezala biguna, jateko guztia, oneik ez diote ba, agoari lanik ematen. Aia ta beste jaki gogorragoak eman bear yakez: sagarrak, aragia, ogi ondo errea, kirri ta karra ots egitekoa eta

beste jaki gogor asko, aupegiko zanak lan egin dagioen, matrail-egur eta agiñen oiek gogortu dakioezan.

Zenbat eta jaki gogorragoak izan, agoa ta agiñak garbiago ta zuriago izango dituzuz.

Agiñak sendoak izateko, aurrak eguzki ta aizetan erabili, garbitasuna gorputz guztian, ta jakiak vitamina ta kare asko duna; igalak, barazkiak, esnea ta abar.

Agiñen etsaiak, karamelo, bonboi, ta gozoki guztiak dira; txan-txar tokiak gertutzen dituzte. Gozokiak apurtzen dute agiñen ganeko jantzitxua, aratza (esmalte), au da azal gogorrena, bein zulatu ezker, beste marfil deritxona biguna da eta berealaxe txantxarrak jaten du.

Ume maitieri kalterik andiena agiten yake, ogera eroan eta an gozokiak emanaz, orduan, gau guztian agin arte guztiak azukeraz eta txantxarrez betetzen yakez: lurra ongi gertatua dago; laister zulatuko dira agiñak eta sarri izango da lorik eza ta negarra. Aitak, aitiak eta osabak ibiltan dira sarri nok kalte andiago egin euren maitetasun okerraz.

Aurtxoek, ortzak urtekeran ez dabe min andirik izaten. Lenengo, aldi ortako eritasun edo geixotasun guztien errua agiñen urteerari ematen zien, baña ez da egia. Agoan lurrik eta zatarrerik sartzen ez bada, ez da gauza txarrik izango.

Agiñek urten da gero,

